

# MUNGIA EDER ZINKUN

Begira nabil zure inguru  
zorakortasun artean,  
ederragorik ez dot ikusten  
nire begien aurrean;  
urdiña goian orleia bean  
baratz ederren tartean  
zerua dago dizdizkaria  
mendi lerdnenen gaiñean.

Ixil-ixilik dago erria  
neguaren babesean,  
iparraldetik egoaldera  
aize ozkiritz aidean;  
urriñaldetik egazka dator  
zinkun zuria goien  
toki eder bat nun ete dagon  
Euskalerriko lurrean.

Mungia eder eukeratu dau  
begiratzeko lurrera,  
gorantza doa tone puntara  
bazter onak ikustera;  
egun da erdi igaro ditu  
alboetara begira  
bigarren gabez denporaleaz  
jun da beste lur batera.

Gainik gain nabil zure inguru  
Euskalerriko lorea,  
mendi ederrez inguraturik  
daukazu izaerea;  
zeru-goi urdin dizdiratsua  
dozu lagun onberea  
argi gozoaz bedeinkatuten  
erritarren arimea.

Seme argiak izan dituzu  
zure lurren babesean  
izar gorrien antzera dizdiz  
jakituriaz batian;  
erri bizia goratu eben  
gogozko ekiñaldian,  
gizon jatorrak ederrak dira  
norbere erri maitian.

Mentxaka eta Zameza jauna  
Elordui'regaz batera  
iru izar on agertu ziran  
Matxiñen erri aldera;  
loreak lore euren ederrez  
baratzan jaiotzen dira  
euskaldun gizon jatorren toki  
Mungia eder zu zara.

Paulin

## TXOMIN

ZUBIRI'tar IÑAKI'ren ELEBARRIA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK  
ARGITARATUA

**BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN**